

2018ko ABENDUA

20.ZENBAKIA



A
L
D
I
Z
K
A
R
I
A

F
E
V
A
P
A
S

EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN
ELKARTEEN FEDERAKUNDEA

E D I T O R I A L A

BAT EGINIK IZATEAREN INDARRA

(1994-2019)

Gure Federazioak 25 urte betetzen ditu 2019an.

1994. urtea zen 3 euskal lurraldeetako **Familia Elkarteok** geure lana Euskal Erkidego osoan koordinatzea erabaki genuenean.

Jarduera ugari burutu izan dugu ordutik, bai publikoak, euskal gizarte osoari eta gorren komunitateari eskainiak, bai barrukoak, gure kideei zuzenduak.

25 urte hauetako gure lanak bizitzaren eremu guztietan eragin du: osasuna, hezkuntza, aisialdia, gizarte zerbitzuak, irisgarritasuna, etab.

Eta aldaketa asko eta onerako eman badira ere eremu horietan guztietan eta, oro har, gizartean, **gure lana eta ahalegina behar-beharrezkoak izaten jarraitzen dute**, oraindik oso urrun baitago gorren komunitate multzoaren inklusioa benetan gauzatuko den eguna.

Eta, asmo horretan, beharrezkoa izaten jarraitzen du elkartearen arteko koordinazioa **eta bertako kideen parte-hartzea**.

*Egunez egunekoan jarraituko dugu elkar ikusten eta
jendeak gu ikusten.*



FEVAPAS 2018 PROGRAMAK

SOZIALIZAZIO-JARDUERAK: Aisialdiko heziketa-programak
Entzuteko desgaitasuna duten Euskadiko haurrei eta gazteei zuzenduta.



33 haur eta gaztek asteburu polit batez gozatu zuten Lekeition (Bizkaia)

15 urtetik 18 urtera bitarteko 10 gazte gorrek "bidea egiten segitu zuten" ekainaren 16an Gasteizen



7 urtetik 14 urtera bitarteko 31 haurrek hartu zuten parte uztailaren 2tik 11ra bitartean Fevapas 2018 kanpamentuetan, Etxarri Aranatzen (Nafarroa)



12 urtetik 18 urtera bitarteko 20 gaztek "Konexioak sortu" zituzten urriaren 27an Donostian



Jarduera GUZTI horiek ezingo ziren burutu FEVAPASEk dituen BORONDATEZKO MONITORE taldearen laguntza eta lanik gabe.



Zer eta nola ari gara egiten? da azaroaren 17an Donostian (Aransgi-ren lokaletan) burutu zen hausnarketa jardunaldiaren izenburua.

Parte-hartzaileak: Federazioko borondatezko 7 monitore.

Dinamizatzailea: Urtxintxa Eskolako profesional bat

Zeinu-hizkuntzako bi interprete

FAMILIA-PROGRAMA

FEVAPASek federatuta dauden elkarteak **KOORDINATU** ditu familiei arreta eta laguntza eskaintzeko lan elkartu eta bateratuan. Familien eta eragiten dien pertsonen **BIZITZA KALITATEA HOBETZEKO HELBURU** nagusiarekin.

LAN KOORDINATU HAU

Hona ZUZENDU da: Orientazio eta informazio eguneratu, objektibo, zabal eta zehatzera // Laguntza psikologiko eta emozionala ematera //

Familiei informazioa eta prestakuntza ematera.

HONELA: Kasu bakoitzaren zuzeneko arreta eta jarraipena // Banakako eskaeren kudeaketa // Ama/aitaren amarenganako/aitarenganako laguntza // Hausnarketa eta prestakuntzarako taldeak // Laguntza psikologikoa // Profesionalekin egindako aldizkako koordinazioa // Familien arteko topaketak // Prestakuntza eta informaziorako hitzaldi eta ekintzak // Sozializaziorako jarduerak.....



Fevapas INFORMAZIOA

**B
I
L
E
R
A
K**

HEZKUNTZA - EJ 18.03.07 18.12.12

OSASUNA / OSAKIDETZA - EJ 18.09.20

IRISGARRITASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA - 18.06.21

EUSTAT- EJ ekainak 19 // **ONCE** Ilunion Aseguruak urtarrilak 30 // **LAE** prestakuntza eta informazioa Datuak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorra urtarrilak 23 apirilak 12 eta urriak 2 // **BATEKIN** Arabako Boluntariotzarako Agentzia urriak 16 eta 30 azaroak 13 // **Gasteizko Udala, Bizikidetza eta Aniztasun Plana** urriak 18 azaroak 5 eta 19 abenduak 10 // **URTXINTXA ESKOLA** Borondatezko monitoreen prestakuntza maiatza iraila urria // **EDEKA** Elbarrituen Ordezkarien Euskal Koordinatzailea hileroko bilera

INFORMAZIO GEHIAGO FEDERAZIOKO ELKARTEETAN ULERTUZ / ARANSKI / ASPASOR

FEVAPAS HEMEN

MINTEGIA Legeen nondik-norakoa urtarrila 29 // **JARDUNALDIA** Sareen Sarean Hirugarren Sektorearen Eguna maiatzaren 15 // **MINTEGIA** hausnarketa boluntarioaren prestakuntza ekainak 14 // **JARDUNALDIA** Etika eta Gizarte Zerbitzuak urriak 5 // **BILTZARRA** Heziketa Aisialdia urriak 19 eta 20 // **FIAPAS** Biltzarra -Madril azaroa 23 eta 24 // **JARDUNALDIA** Edeka abendua 14

ELKARTE FEDERATUETAN



ARANSGIN 2018AN

Aurten, apirilean egin dugu Tolosako AransGi Zentroan Gipuzkoako Haurren XIV. Topaketa. Bertan, gure neska-mutikoen garapen harmoniatsurako beharrezkoak diren sare sozial batzuk jartzen saiatu gara. Topaketak "Goazen Bidaiztera" egitasmoa izan du ardatz. Jolasak eta lehiaketak egin dira gai horren inguruan.

Halaber, ekainean "Ikasgela Irekia" urteko proiektua burutu dugu lau egunetan zehar. Proiektuak badaramatza jada 18 urte, eta Zuhatza irlan egindako gazte-topaketari heldu zaio berriro. Irlan egin ohi diren jardueraz gain, aukera egon da gazte izatearekin lotutako gaiak lantzeko, euren gizarte harremanak, etab.

Azkenik, urrian "Ikasgela Irekia" egitasmoaren ikasturteari hasiera eman diogu Etxarri Aranatzeko asteburu batean egindako topaketan. Mendiko irteerak eta eztabaidak egiteaz gain, larunbatean Tolosan ospatzen zen Zeinu-hizkuntzako Zinema Jaialdira joan ziren, eta bertan AransGin uztailan egindako laburmetraia bat aurkeztu zuten.



ULERTUZEN 2018AN

Ulertuzek belaunaldi arteko topaketa bat antolatu zuen joan den urriaren 20an Deustuko Bidarte Udaltegian.

Erakundeko bi amek, aita batek eta lau gaztek osatutako talde batek euren bizipena partekatu zuten beste familia batzuekin, entzuteko desgaitasunaren inguruan. **Hizlari bakoitzak** bere-bereak eta guztiz ezberdinak ziren kontuak azalduz, izugarri aberastu zuten topaketa.

Oso une hunkigarriak eta bizitasunez betetakoak eman ziren, eta gauza asko ikasi genuen haiengandik.

Jarduerak hiru ordu baino gehiago iraun zuen, baina labur geratu zen bertaratu ziren aita-amen askotariko zalantza edo jakinminei erantzuteko.

Hemendik berriro eskertu nahi diegu guraso eta gazte horiek osatutako taldeari, bihotza zabaldu baitzigun guztien aurrean euren bizipenak partekatzeko eta guztia hobeto ulertzen laguntzeko.. **Esker mila!!**



PRAKTIKA INKLUSIBO ON BAT

Gasteizko zentro zibikoetako arduradunekin lan-bilera batzuk izan eta gero, Aldabe Zentro Zibikoaren liburategiko programazioan entzuteko desgaitasuna duten neska-mutikoen besteekin batera parte har dezaketen jarduera bat sartzea lortu dugu, guztiek gozatuko duten tailer bat antolatuta. Kontuan izanik musika zela aurtengorako jarritako gaia, zailxeago geneukan, baina ARYMUXek emango zuen zeinu-dantza tailer bat proposatzea bururatu zitzaigun, eta proposamena aurkeztu eta onartu egin zen. Udaletik jarri ziren taldearekin harremanetan, eta Aspasor-eko 10 ume gonbidatu ziren parte hartzera.



Jarduera azaroaren 24rako, larunbata, programatu zen. Lehenengo, 17:00etatik 19:00etara, tailerra egin zen, abesti bat entseatuz, eta gero, 19:00etan, jarduera txiki batera gonbidatu zitzairen familiei eta aurretik gonbidapena hartua zutenei, zeinak musikarekin eta dantza eta zeinu-hizkuntzaren arteko koordinazioarekin gozatzen segitu zuten. Jarduera burutu zen aretoak 140 pertsonentzako edukiera zuen, eta bete egin zen.

Aspasor-etik positiboki baloratzen dugu esperientzia, elkartruckerako aukera bat izan da, hizkuntza-zeinua jarduera ludiko baten bidez emanez ezagutzera eta komunikatzeko eta adierazpenerako duen balioa aintzatetsiz. Neska eta mutil guztiak zeinu-hizkuntzara hurbildu ziren, ongi pasatu zuten eta, gero, familiak eta, oro har, herritarrek partekatu egin zuten esperientzia hori.

Bestalde, erakundeei, kasu honetan Gasteizko Udalari, entretenitzen, jostatzen eta, aldi berean, jokaera positiboak sortzen dituzten jarduera inklusiboak antola daitezkeela erakusteko modu bat izan da, eta jarduerak aisialdia eta kultura guztientzat izan beharra azpimarratzen du.



FEVAPASETIK GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU



COLABORA / LAGUNTZEN DU

